

EUSKALTZAINDIKO JAGONET-EN ZERBITZUA

*Joxe Ramon Zubimendi,
JAGONETen arduraduna.
Euskaltzaindia.*

1. JAGONETeko galdelekuan jasotako galderak: 900
2. JAGONETek banan-banan emandako erantzunak: 892
3. JAGONETeko datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 382
4. JAGONETeko datu-baseak hartutako bisitariak*: 12.073 (batez beste, egunean 33)

JAGONETeko datu-baseak 2002an hartutako bisitari-kopuruaren hilez hileko xehetasunak:

urtarrila:	989	uztaila:	568
otsaila:	981	abuztua:	519
martxoa:	1.068	iraila:	898
apirila:	910	urria:	1.294
maiatza:	1.013	azaroa:	1.148
ekaina:	716	abendua:	1.969

OHARRAK:

Aipaturiko datuok ikusirik, agerian dago JAGONET zerbitzuak 2002an alor guztietan egin duen aurrerapena: iazkoaren aldean, ugaritu egin dira datu-basearen edukia (% 138,4), bisitariak (% 137,5) eta banan-banako erantzunak (% 106,5).

Bestetik, argi dago Euskaltzaindiak webgunea berritu duenetik, 2002.eko abenduaren 2tik aurrera, euskaltzaleek askoz errazago aurkitzen dutela JAGONET zerbitzua. Horregatik ugaritu dira horrenbeste abenduko bisitak. Ugalitze hori guztiz esanguratsua da, eta are esanguratsuagoa Gabonetako oporrak tarteko zirela kontuan hartuta. Horrek esan nahi du, noski, 2003. urtean are

* Datuok EUSKALTELeK emanak dira.

eta jende gehiagok baliatuko duela JAGONET zerbitzua. Beraz, ahalegin berezia egin beharko dugu datu-basea hornitzen segitzeko.

Alderaketa ikusteko, hona hemen JAGONETeko 2001eko datuak (martxoak 21- abenduak 31):

1. JAGONETeko galdelekuan jasotako galderak: 668
2. JAGONETek banan-banan emandako erantzunak: 656
3. JAGONETeko datu-basea osatzen zuten galde-erantzunak: 276
4. JAGONETeko datu-baseak hartutako bisitariak*: 6.621 (batez beste, egunean 24).

Ez adiorik.